

KIROLAK ERAIKINEAN ITAIA ETA GKS-REN AURKA EGINDAKO ERASOEN HARIRA

Ohar honen bidez Itaia eta Gazte Koordinadora Sozialistak Arrigorriagako “Kirolak” eraikinean bertako gazte asanbladak egindako erasoak salatu nahi ditugu. Ondorengo lerroetan gertakizunaren azalpena eta guk horren aurrean dugun jarrera argitu nahi dugu.

Duela hilabete batzuk Arrigorriagako “Kirolak” eraikineko zenbait espazioren distribuzioa zein izango zen erabakitzeko bilera bat deitu zuen Arrigorriagako Gazte Asanbladak. Bilera horretara, eraikineko bigarren pisua erabiltzen duen Hego Uribeko Sare Sozialistak gonbidatuta agertu ginen. Arrigorriagako Gazte Asanbladak Hego Uribeko Sare Sozialista eraikin osoari dagozkion erabakiak hartzeko asmotan deitu zuten bilera horretatik kanpo utzi nahi izan zuen, eurei jakinarazi gabe bilera gauzatuz. Halabaina Hego Uribeko Sare Sozialistak bileraren berri izan zuen eta jarraian Gazte Asanbladarekin harremanetan jarri zen bileraren zehaztasunak ezagutzeko. Bertaratu ginenak honako hauek izan ginen: Itaiatik 2, eraikinaren azpiegituraz arduratu izan den GKSko ordezkari bat, Hego Uribeko Sare Sozialistako 10 kide, Arrigorriagako Gazte Asanbladatik 5 eta, bere kasa, eraikinean bizi den gazte bat. Bertan, besteak beste, honako erabaki hauek hartu ziren: frontoiaren erdia biltegi bat egiteko erabiliko zen (GKSren ordezkariak proposatua) eta lehenago taberna zegoen tokia Itaiari eman zitzaion. Bilera horretan aurrez aipatutako eragile guztion artean adostuta eta onartuta gelditu ziren erabaki hauek.

Adostutakoari jarraituz, zenbait exigentzia ere bete genituen Itaia eta GKS, frontoiaren beste alderdiaren kudeaketa kolektiboa onartzuz adibidez. Behin hori eginda, GKSren biltegian eta Itaiaren espazioan lan egunak antolatzen hasi ginen, Euskal Herri osotik etorri diren militanteen lanari esker burutu ditugunak.

Salatzen ari garen erasoaren funtsa hemen aurkitzen da: orduetik aurrera Arrigorriagako Gazte Asanbladak ez du bilera horretan guztion artean hartutako erabakia bere egin eta adostutako espazioan gure proiektuak garatzeko oztopoak jarri ditu behin eta berriro hilabete hauetan. Horren adierazle dira orain aipatutako ditugun gertakariak.

GKS eta Itaiak jakin izan dugu Gazte Asanblada frontoian bertan beste proiekturen bat garatzeko asmoekin zebilela, guri ezer esan gabe eta erabakiak hartzeko prozedimendu formal guztiak saltatuz. Horren ondorioz, modu zuzenean oztopatzen saiatu dira gure espazioetan egin izan ditugun aurrerapen desberdinak: obra lanak segurtasunez burutu ahal izateko frontoiaren sarreran ate bat jarri genuenean, esate baterako, beraiek zerraila aldatu ziguten, guk konpondu genuen beste sarrera apurtzearekin batera (lan-eguna burutu eta egunean bertan egindakoa jakinarazi eta beraiei giltza emateko asmoz beraiekin kontaktuan jarri baginen ere; eurek ez zituzten gure deiak erantzun, ezta kontaktu saiakerak onartu ere. Eraikina darabilten beste militante zein norbanakoei, ordea, berehala eman ahal izan genien giltza, nahi zutenean bertaratu zitezten).

Hau ikusita, Arrigorriagako Gazte Asanbladarekin bilera bat deitu genuen Itaia eta GKS, zeinetan ofizialki jakinarazi zitzaigun ez zutela bat egiten hasieran aipatutako bilera hartan guztiok onartutako erabakiekin. Beraiek “sobera” zuten zatia erabili edo gure proiektua eraikinetik kanpo garatzea ziren beraiek guretzat zituzten aukera berriak. Are gehiago, bilera horretan espazioaren distribuzio hori ez



zela onartu adierazi eta zuzenean gezurretan ari ginela aurpegiratu ziguten. Guztion artean hilabeteak lehenago onartutakoarekin lanean hasiak ginela, GKS eta Itaiarentzan espazio egokiena hura zela eta lan horretan jarraituko genuela adierazi genien; eta gure proiektuak errespetatzeko eskatu.

Azkenekoz, GKSren biltegian margoketak egin dituzte, berriro ere denok hartutako erabakiak errespetatzeko borondaterik ez dutela erakutsiz. Hori horrela, erasoaren larritasuna ikusita eta hauek gelditzeko beste bideak agortuta, Itaiak eta GKSk ohar hau publiko egitea erabaki dugu, Arrigorriagako Gazte Asanbladaren jarrera eta egindako erasoak salatzen. Gure borondatea eta posizioa argia da: hasieran egindako bileran onartutakoaren baitan lanean jarraituko dugu eta bertan erabakitakoa errespetatu dadila eskatzen dugu, ez dugu ez gehiago ez gutxiago eskatzen. Hemendik aurrera hori beteko dela espero dugu.

